



**Ikastolen emendakin, ohar, galderak –
Batzorde eragilearen erantzunak**
*Amendements, remarques, questions des ikastola –
Réponses du Conseil Exécutif*

2022-23 NORABIDEAK – ORIENTATIONS 2022-23

2 - PROIEKTUAK :

LOT :

Bidarte zein kolegioari lotua da ? (ikastolaren arabera ? Bizitokiaren arabera?)

A quel collège est rattaché Bidarte ? (en fonction de l'ikastola ? du lieu de résidence ?

Bizitokiak du finkatzen kolegio eremua. Bidarten bizi dena Piarres Larzabali lotua da. Getari ere. Arbona eta Ahetze Senpereri lotuak izanen dira.

C'est le lieu de résidence qui détermine le collège. Celui ou celle qui vit à Bidart est lié à Piarres Larzabal. Getaria aussi. Arbona et Ahetze seront liés à Senpere.

ORTZAIZE :

Oharra /remarque :

Hasteko, orokorki egin nahi ginuekeen ohar edo galde bat : dokumentuen errezebitzeko eta emendakinen igortzeko arteko epeak labur iduritzen zaizkigu. Neke zaigu denen egitea hain fite. Zonbeit egun gehiago ez litaizke soberan.

Pour commencer, nous voudrions faire une remarque ou poser une question : les délais entre la réception des documents et l'envoi des amendements nous semblent courts. Il nous est difficile de le faire si vite. Nous apprécierions quelques jours de plus.

Batzorde Eragilearen erantzuna / Réponse du Conseil Exécutif :

Badakigu epeak laburrak direla, baina epeak luzatuko bagenitu, dokumentoak maiatza erdian aurkeztu orde, maiatza hastapenean beharko genituzke aurkeztu, eta biziki goiz da hainbat elementu ez baititugu ukanen (postuak, negoziaketak instituzio ezberdinekin eta abar). Horretarako egutegia urte hastapenetik finkatua da, Biltzar nagusiak ahal bezain goiz antolatzeak aukera ukan dezazuen.

Nous savons que les délais sont courts, mais si nous devons prolonger les délais, au lieu de présenter les documents à la mi-mai, il faudrait les présenter début mai, et c'est très tôt car nous n'aurons pas tous les éléments (postes, négociations avec différentes institutions, etc.).

Le calendrier est fixé en début d'année afin que vous puissiez organiser l'Assemblée Générale le plus tôt possible.

"Proiektuak" partean, zati huni lotua : "Lizeoak heldu den irailean jauzi berri bat egingen du ere, 400 ikasleen heina gainditurik. Lizeoaren etorkizunari buruz gogoeta abiatu dugu, kolegioetako eta lizeoko administrazio kontseiluekin, 2022-2023 ikasturtean segituko duguna."

Nahi ginuke gogoeta hortan indar bat eginga izan dadin barnekaldeko haurrendako. Ainitzek ez dute lizeoa ikastolan segitzeko aukerarik, Baiona urrunegi baita. Ikasleak beste eredu batetara joaitea behartuak dira.

Barnategian leku baten ukaiteko baldintzak ez dira onargarriak haur horiendako.

Galdegiten dautzuegu gogoetan kondutan hartua izan dadin barnekaldean sendi dugun beharra, edo barnategian sartzeko aukera eman ez gure eskualdean lizeo baten egiteko posibilitatea aztertuz.

Dans la rubrique "Projets", il est précisé : "Le lycée fera également un nouveau bond en avant en septembre, en dépassant la barre des 400 élèves. Nous avons entamé une réflexion sur l'avenir du lycée avec les conseils d'administration des collèges et lycée que nous poursuivrons au cours de l'année 2022-23"

Nous voudrions que lors de cette réflexion un effort soit fait afin de tenir compte des enfants de l'intérieur. Beaucoup d'élèves n'ont pas la possibilité d'aller au lycée Etxepare car Baiona est trop loin. Ces élèves sont contraints de choisir un autre modèle d'enseignement.

Les conditions d'accès à l'internat ne sont pas acceptables pour ces élèves.

Nous vous demandons de tenir compte du besoin que nous avons à l'intérieur au cours de cette réflexion, ou de faciliter l'accès à l'internat, ou d'étudier la possibilité d'ouvrir un lycée à l'intérieur.

Abiatu den gogoetan errealitate hori kontutan hartua da eta izanen da. Dena dela urrunen bizi direnek lehentasuna dute barnategian.

Il est et sera tenu compte de cette réalité lors de la réflexion qui a été entamée. Les plus éloignés ont la priorité à l'internat.

ETXEPARE :

Izan ere, ondoko urteetako kopuru prebisioak ikusiz (600 ikasle pasa 5 urteren buruan), erabakia hartu beharko da urtean zehar : lizeo bakarra handitu ala 2.n lizeo bat sortu. Era berean, barnetegia bere mugetara heldu da eta aterabide bat atzeman behar da.

Au vu des prévisions (plus de 600 élèves dans 5 ans), il faudra décider cette année d'agrandir le lycée Etxepare ou d'en ouvrir un second.

Dans le même temps, l'internat arrivant à la limite de sa capacité d'accueil, il faudra trouver une solution.

Maleruski gauzak ez dira hain sinpleak. Beharbada Etxepare handitu beharko da eta bigarren lizeo bat ere. Ea lortzen dugun ikasturte berrian gogoeta aitzinatzen, hainbat parametro hartu behar baita kontutan (urruntasuna, garraio denbora, eskaintza, profesionala, teknologikoa, bigarren lizeo baterako masa kritikoa, barnategia, kokapena, diruztatzea, oportunitateak...).

Malheureusement les choses ne sont pas si simples. Peut-être faudra-t-il agrandir le lycée et en ouvrir un second. Voyons si nous réussissons à faire avancer cette réflexion cette nouvelle année car il faut tenir compte de plusieurs paramètres (l'éloignement, le temps de transport, l'offre professionnelle, technologique, la masse critique pour un deuxième lycée, l'internat, l'emplacement, le financement, les opportunités ...).

OIHANA :

Zein da 5. kolegioaren finantzaketa plana (Departamenduaren eta herriko etxearen arteko banaketa)?

Quel est le plan de financement du 5ème collège (répartition entre le Département et la mairie) ?

5. kolegioak 8 milioi euroko aurrekondu bat du, une honetan departamenduarekin aipagai duguna. Goizegi da erantzuteko. Departamenduaren laguntzaz gain, parte on bat guhaurk autofinantzatu beharko dugu. Herriko Etxeak lurra uzten du.

Le 5^{ème} collège a un budget de 8 millions d'euros dont nous sommes en discussion en ce moment avec le Conseil Départemental. En plus de l'aide du Conseil Départemental, nous devons financer une bonne partie du projet. La mairie prête le terrain.

Zein da lizeoaren etorkizunari buruzko hausnarketa gaia?

Quel est l'objet de la réflexion sur l'avenir du lycée ?

Lizeoari buruz, gaur egungo kopuruen emendatzearen ondorioak eta eraiki nahi dugun eskaintza dira gogoetagai.

Concernant le lycée, la réflexion se porte sur la conséquence de l'augmentation des effectifs et sur l'offre que nous voulons proposer.

LEKORNE :

Besteak beste ikasleen euskara maila hobetzeko xedearekin 4,5 astea 5 ikastolekin esperimentatzea aipatu zen, zertan da proiektu hau ?

Il avait été mentionné que pour améliorer le niveau de langue basque des élèves, entre autres, la semaine des 4,5 jours serait expérimentée avec 5 ikastola. Qu'en est-il de ce projet ?

Esperimentazioa hiru ikastolekin abiatu nahi genuen, baina ez zen ikastola hautagairik aurkeztu.

Nous voulions démarrer l'expérimentation avec 3 ikastola mais aucune ikastola n'a candidaté pour participer à l'expérimentation.

3.1 : Legea : la Loi

ZALDUBI :

" Eraikuntza publikoak finantzatzeko gaitasuna" zer erran nahi du xuxen ?

Que signifie exactement « la capacité de financer les constructions publiques » ?

Gaur egun 19. mendeko Falloux legearen ondorioek debekatzen diete instituzio publikoei gure eraikuntzak diruztatzea edo eraikuntza publikoak egitea guretako. Legearen hainbat zirrikitu baliatzen ditugu (Bigarren mailen aurrekontuen %10a, herriko etxeen jabetzan diren egoitzen konponketa eta handitzeak, alokatze kontratu prekarioak, eta abar), baina oztopoak oraindik handiak dira.

Aujourd'hui la loi Falloux datant du XIXe siècle interdit aux institutions publiques de financer nos bâtiments ou de nous faire construire des bâtiments publics. Nous utilisons diverses lacunes de la loi (10 % du budget des établissements secondaires, réhabilitations et extensions des logements appartenant au mairies, baux précaires, etc.), mais les contraintes restent élevées.

OIHANA :

Zer dago "hezkuntza sistema propioa lortzearen" atzean? Horrek esan nahi al du ENrekin kontraturik ez egotea?

Que met-on derrière «se doter d'un système éducatif propre » ? Cela veut-il dire ne plus être sous contrat avec l'Education Nationale ?

Hezkuntza Ministeritza gaur egun sistema hiperzentralizatua da. Dena erabakitzen da Parisen. Hezkuntzaren deszentralizazioa gure lan ildoetariko bat da, erabakiak hemen har daitezen, tokiko behar eta ezaugarrien arabera. Euskal Elkargoak ez du gaur egun eskumenik hezkuntzan. Ondoko urteetan Euskal Elkargoaren izaera aldatuko balitz, hezkuntza eskumenak ukaitea interesgarri litzaiguke. Bestalde, sobera begiratzen dugu Frantzia aldera eta gehiago begiratu behar genuke Hego Euskal Herriari buruz, elkarlanean gehiago aritzeko. Estatuarekin ditugun kontratuak zalantzan ezarri gabe, koadro egokiago bat nahi genuke.

Le ministère de l'Education Nationale est un système hyper centralisé à l'heure actuelle. Tout se décide à Paris. La décentralisation de l'éducation est un de nos axes de travail, que les décisions soient prises ici, en fonction des besoins et constats de ce territoire. La Communauté d'Agglomération n'a pas de compétence à ce jour dans le domaine de l'éducation. Si la nature de la communauté venait à changer dans les années à venir, il serait intéressant pour nous qu'elle puisse exercer des compétences éducatives. Par contre, nous sommes trop focalisés sur la France et nous devrions regarder de plus près le Pays Basque Sud pour travailler davantage ensemble. Sans remettre en cause nos contrats avec l'état, nous voudrions un cadre plus adapté.

Aipatu "Elkarrekin bizi" proiektuan parte hartzen duten ikastolak.

Mentionner les ikastola qui participent au projet « Vivre ensemble ».

Aurten elkarrekin bizi proiektuan parte hartzen duten ikastolak dira : Biez bat, Kimua, Sohüta, Amikuze, Uztaritze eta Oihana.

Voici les ikastola qui ont participé au projet « Vivre ensemble » : Basusarri, Angelu, Sohüta, Amikuze, Uztaritze eta Oihana.

3.2 Euskara plana / Le plan Euskara

- **Irakasleekin / avec les enseignants**

LARZABAL KOLEGIOA :

Testuan ez da azaltzen aintzinetik Euskal Curriculum-aren baitan eraman den Euskal Programaren lanketa. Zergatik ?

Le texte ne décrit pas le travail qui a été mené en amont pour le programme de basque au sein du curriculum basque. Pourquoi ?

Norabideetan heldu den ikasturterako lan ildoak aipatzen ditugu laburzki. Bistan dena abiatuko den lan horretan orain arte egin den lana kontutan hartuko da.

Sur les orientations, nous décrivons brièvement les axes de travail pour l'année à venir. Bien évidemment, le travail qui a été fait jusqu'à présent sera pris en compte dans ce travail qui va commencer.

LOT :

Etorkizunari begira, 1.mailako ahozko frogen pasarazteko eta noten sartzeko kanpoko pertsona bat galdegina da.

Aipatu zen zuzendarien bilkuran aurtengo 6.ei 5.urtekoek ukan duten ahozko froga bera pasaraztea. Egin izan dea ?

A l'avenir, il est demandé qu'une personne extérieure fasse passer les épreuves orales et saisisse les notes du primaire.

Lors d'une réunion des directeur.trice.s il avait été évoqué que les élèves de 6e année passeraient les mêmes épreuves orales que les élèves de CM2. Cela a-t-il été fait ?

9,10, 11 urteko haurrei ahozko frogak ezagutzen ez duten pertsona batek pasaraztea ez zaigu egokia iduritzen. Ikastolan berean antolatzea ezagutzen dituzten irakasleekin anitzez goxoago da, aurtan egin den bezala.

Ahozko frogak lehen mailan hirugarrenean eta bostgarrenean diren haurrek pasatzen dituzte. Frogaka adinari egokituak dira. Beharrezkoa iruditu zaigu lehen mailatik ateratzen diren haurren euskara maila neurtzea, kolegiara sartu aitzin zertan diren jakin dezagun, gurasoek, haurrek eta ikastolako talde pedagogikoek. Mugarri bat ezarri nahi dugu lehen mailatik ateratzen diren haurren euskara maila neurtzeko, ondotik lortu behar luketen euskara mailara heltzeko beharrezkoak diren esku-hartzeak doitzeko.

6.enean ez da frogarik egin.

Nous ne pensons pas qu'il soit approprié qu'une personne qui ne connaît pas les enfants puissent faire passer ces tests aux enfants de 9, 10, 11 ans. C'est beaucoup plus agréable de s'organiser au sein de l'ikastola avec les enseignant.e.s qu'ils connaissent comme cela a été fait cette année.

Les tests oraux sont passés en CE2 et CM2. Les tests sont adaptés à l'âge. Il nous a semblé nécessaire de mesurer le niveau de basque des enfants sortant de l'école primaire avant leur rentrée au collège, afin que les parents, les élèves et l'équipe éducative sachent où ils en sont. Nous voulons mettre un indicateur pour mesurer le niveau de basque des enfants sortant de l'école primaire, afin d'ajuster les interventions nécessaires pour atteindre le niveau de basque qu'ils devraient atteindre plus tard.

Il n'y a pas eu de tests en 6^{ème}.

ERROBI :

Ongi liteke argitzea euskara neurtzeko zein froga pasatzen duten ikasleek eta noiz (1.mailetik lizeoa arte = 5.urtean, B2, EGA..).

Lehen mailan hirugarren urtean eta bostgarren urtean pasatzen dituzte euskarazko ahozko frogak.

Bigarren mailan B2 froga pasatzen da 3.ean, eta EGA (C1) 1.ean.

Au primaires les tests oraux de basque sont passés en CE2 et CM2.

Au secondaire, les élèves de 3^{ème} passent l'épreuve B2 et EGA (C1) en 1ère.

UZTARITZE :

Ez bagara tronpatzen, iazko norabideetan euskara saileko koordinatzaile postu emendaketa erabaki zen... honen balorazio bat ukaiten ahal da? Beharrei erantzuteko aski izan ote da?

Si nous ne nous trompons pas, l'année dernière il avait été décidé d'augmenter le poste de coordinateur d'Euskaraz Bizi... peut-on avoir une évaluation ? Est-ce suffisant pour répondre aux besoins ?

Ez dugu balorazio zehatz bat egiteko astirik izan, ikasturtea ez baita oraino bururatu. Aurten sortu dugun postuak bigarren mailen beharrei gehiago erantzuten die. Horren sakontzeko proposatzen da Euskal Programa osatzen joatea, bigarren mailako irakasleak libratuz.

Nous n'avons pas eu le temps de faire un bilan détaillé car l'année scolaire n'est pas encore terminée. Le poste que nous avons créé cette année répond davantage aux besoins des secondaires. Pour approfondir cela, il est proposé de compléter le programme basque, en libérant les enseignants du secondaire.

LEKORNE :

Nola egin behar da kanpoko eremuaren eraldaketa proiektuan parte hartzeko ? Ikastola guzietan proposatua da ?

Comment faire pour participer au projet de Transformation de l'Espace Extérieur ? Est-il proposé à toutes les ikastola ?

Hiru urteko plangintza bat ezarriko dugu abian eta aitzinatu ahala finkatuko dira eman beharreko urratsak, eta zein ikastolak partehartuko duen aztertuko da.

Nous mettrons en place un plan triennal et les étapes à suivre seront déterminées au fur et à mesure, et l'on étudiera quelle ikastola participera au plan.

- **Burraoak euskaldundu /Formation de basque des parents**

LOT :

Emendakin proposamena / proposition d'amendement :

Horrez gain, urte hastapen guziz, euskara xarta buraso guziei ezagutarazi eta izenpetaraziko da.

De plus, chaque début d'année scolaire, les parents devront prendre connaissance de la charte Euskaraz Bizi et la signer.

Ados. Bestalde Euskara Xarta bigarren mailetara egokitzeko lana abiatu da.

D'accord. Le travail d'actualisation de la charte Euskaraz Bizi pour les secondaires a démarré.

LEKORNE :

Gurasoak diru laguntza hau badela informatu nahiko genituzke urtero, dokumenturik ba ote da ? Izen emate fitxa bat, agian ikastola bakotzeko euskaraz bizi komisiok info hori helarazten ahalko lukete, xehetasun fitxa bat izan ezker.

Chaque année, nous voudrions informer les parents qu'une aide est disponible, y a-t-il un document ? Un formulaire d'inscription, peut-être que les commissions Euskaraz Bizi de chaque ikastola pourraient fournir cette information, s'il y a une fiche détaillée

Jadanik urte guziz informazioa zabaltzen da ikastoletan buraso berriei zuzendurik, Aekn klaseak abiatzeko aukera azalduz eta dirulaguntza aukerak aipatuz. Eskaeren arabera ere bilkurak egiten dira ikastoletan gai horri buruz, euskara teknikariarekin.

Chaque année, des informations sont diffusées aux nouveaux parents d'ikastola expliquant la possibilité de commencer les cours d'AEK et mentionnant les possibilités de financement. En fonction des demandes des réunions sur ce sujet sont organisées dans les ikastola avec le technicien de la langue basque.

UZTARITZE :

Euskaraz bizi" taldeei buruz ez da deus azaltzen... zergaitik ?

Il n'y a rien de mentionné sur les groupes Euskaraz Bizi ... pourquoi ?

Helduden urtean Euskaraz Bizi hitzarmena (Xarta) eguneratzeko asmoa ukanen dugu. Ber maneran, lizeo, kolegioetako euskara erreferenteek haien lana aitzinatuko dute. HIZPRO autoebaluazioak sakondu eta hobetzeko helburua dugu.

Nous prévoyons de mettre à jour la charte Euskaraz Bizi l'année prochaine. De la même manière, les référents de basque du lycées et collèges vont avancer leur travail. Nous visons à approfondir et à améliorer les auto-évaluations HIZPRO

“Burrasoak euskalduntzeko” norabideak bi lerrotan aurkeztea galdekatzekoa ikusten dugu, gure iduriko lehentasunezko eta funtsezko lan ardatzea izan behar duelako gorago aipatua den Hezkuntza proiektua biziara eta finkatu ditugun helburuekin koherentea izan nahi badugu. "Oinarriak 2022-2026" taulan erranan den bezala, Seaskatik pasako den ikaslea "Euskal hiztun osoa eta konziente" bilakatzea bada xedea, euskara ikastolan soilik entzutea eta mintzatzea ez da aski izango... etxean ezinbestekoa da ere (gizartean mugatua dela badakigularik). Gaia sentsiblea da, gurasoen euskara ikasteko arduraz mintzatzen garelako, baina jujatu gabe euskararen erabilerari buruzko konzientizazioa eta praktika indartzera joan behar dugu. Adibidez, AEK-ren laguntzarekin, astean behin ikastolan bertan burasoen arteko tailerrak proposatzea egingarria ote da (gastuak txikitzeko sektoreka ikastolak elkartuz, haurrekin dugun eguneroko bizitzan oinarrituz, burasoen arteko trukaketak bultzatuz...) ? Eta euskaldundu behar diren guraso berriei hasierako baldintza bat bezala pausatuz ?

Il nous semble qu'il faudrait détailler "la formation des parents" sur les orientations, car pour nous cela doit être un axe prioritaire et essentiel de notre travail si nous voulons être cohérents avec les objectifs que nous avons fixés plus haut à savoir faire vivre le projet éducatif. Si l'objectif mentionné sur le tableau "Socle 2022-26" est de faire d'un élève qui passe par Seaska un "locuteur bascophone complet et conscient", il ne suffira pas d'entendre et de parler basque à l'école... c'est aussi indispensable à la maison (sachant que la possibilité de parler basque en société est limitée). C'est une question sensible car nous parlons de la responsabilité des parents d'apprendre le basque, mais sans juger, mais nous devons faire le possible pour faire prendre conscience de la nécessité de l'utilisation de la langue basque. Par exemple, avec l'aide de l'AEK, est-il possible de proposer des ateliers entre parents à l'ikastola une fois par semaine (rassembler les ikastola pour réduire les coûts, en se concentrant sur le quotidien avec les enfants, favoriser les échanges entre parents) ? En proposant cela comme condition aux nouveaux parents qui doivent devenir bascophones ?

Burasoak ezin ditugu behartu euskara ikas dezaten. Bistan dena lagungarri litzatekeela buraso guziek euskara jakinen balute. Baina euskara jakin ala ez, burasoek anitz lagundu dezakete ikasketa horretan, haurrei aisialdiak euskaraz eskainirik (liburu bat, uda leku, euskal hedabideak, euskal antzerkia,...). Aek-k jadanik proposatzen ditu buraso berriendako klase bereziak, haurren erritmoan ikasten joateko. Ideia guziak ongi etorriak dira, esperimentatzeko emeia baduzue jo aitzina.

Nous ne pouvons pas obliger les parents à apprendre le basque. Evidemment cela serait plus facile si tous les parents savaient la langue. Mais qu'ils soient bascophones ou non, les parents peuvent aider dans l'apprentissage du basque en offrant des loisirs en basque à leurs enfants (un livre, Uda Leku, les médias bascophones, le théâtre en basque...). AEK propose des cours adaptés aux parents désireux d'apprendre le basque, en apprenant au rythme de l'enfant. Toutes les idées sont les bienvenues, si vous avez envi d'expérimenter, lancez vous !

4. HEZKUNTZA

4.1 : Hezkuntza proiektua

LEKORNE :

Proiektu serio bat dela iruditzen zaigu, oinarri bat. Lanketa sakon bat egin dezagun nahiko genuke. Tarrapatakan ari girela sentitzen dugu. Azken bilkuretan 7 bat ikastola ginen soilik Hezkuntz Proiektuaren lanketan. Gainera gurasoek alde batetik eta erakasleek bestetik eraman dugu ausnarketa elkarlanik gabe. Proiektu hau oinarri izanki elkarlanean sakondua izan behar dela pentsatzen dugu. Nola eta nork idatziko du testu hori, ekainaren 10ean jasotzen badugu emendakinak egiteko aukerarik ez da izanen, eztabaida bat izateko ere lekurik ez da izanen. Ekainaren 25ean bozkatu behar dugun testu bat izanen da seguraski ? Denbora gehiago behar dela pentsatzen dugu. Ikastoletan komizio bereziak sortuz lanketa hau sakontzeko gisan adibidez.

Duela 5 bat urte Jean Mixel, guraso eta erakasle talde batekin lanketa bat hasi zen, ikastoletan hezkuntz taldeak berriz sortuz eta hezkuntz proiektu bat eraikitzeko xedearekin. Eraman zen lana (urte batez) nun da ? Hezkuntza proiektuan kontutuan hartua izan da ? J. Mixelen denbora eskasa eta lan zamarengatik lanketa gelditua izan zen.

Cela nous semble être un projet sérieux, une base. Nous aimerions que ce soit un travail de fond. Il nous semble que nous agissons dans la précipitation. Lors des dernières réunions, nous n'étions que 7 ikastola à travailler sur le projet éducatif. De plus, nous avons mené ce travail de réflexion avec d'un côté les parents et de l'autre les enseignant.e.s.. Nous pensons que ce projet doit être approfondi en collaboration. Comment et qui rédigera ce texte, si nous le recevons le 10 juin il n'y aura pas de possibilité d'amendements, il n'y aura pas non plus de place à la discussion. IL s'agira probablement d'un texte que nous devons voter le 25 juin ? Nous pensons qu'il faut prendre plus de temps. Créer des commissions spécifiques dans les ikastola pour approfondir ce travail, par exemple.

Il y a environ 5 ans, Jean Mixel a commencé à travailler avec un groupe de parents et d'enseignants, recréant des groupes éducatifs dans les écoles avec comme souhait de créer un projet éducatif. Où est le travail qu'il a mené (pendant un an) ? A-t-il été pris en compte dans le projet éducatif ? L'étude avait été interrompue car Jean Mixel manquait de temps et avait une trop grande charge de travail.

Hezkuntza proiektua eguneratzen hasteko oinarri bat landu da azken hilabeteotan Hezkuntza Kontseiluan. 2022/23an sakonduko dugu lana behar den astia hartuz. Ez dira bakarrik 7 ikastola aritu. Pedagogi Kontseilua (hemendik aitzina Hezkuntza Kontseilua deituko duguna), hiru aldiz bildu da 30 bat ikastolak partehartu du gogoetetan, Hezkuntza taldeak ikastoletan berriz osatzen ari dira, lehen eta bigarren mailako zuzendariak, Seaskako hezkuntza taldeak, Batzorde Eragileak, lizeoko ikasle talde batek, Ikastolen Kontseilu idekiak, 1995ean Hezkuntza Proiektua idatzi zutenak parte hartu dute abiatze etapan. Ikasturte berriko erronka hirukoitza da : Hezkuntza Proiektua eguneratzeko lana, Hezkuntza Kontseiluaren ibilmoldea finkatu eta Ikastoletan Hezkuntza Taldeak sortu. Eta bistan dena hori dena gauzatzen hasi.

Jean-Mixelen inguruan Pedagogia kontseiluak azken urteetan eraman zuen lana ikastoletako hezkuntza taldeei buruz bururatu da eta horren emaitza 2021eko abenduko Ikastolen Kontseiluko dokumentuekin batera banatu zen. Justuki, Hezkuntza Taldeen gida hori oinarri bat da ikastola bakoitzak sakondu dezan Hezkuntza Proiektuaren inguruko gogoeta kolektiboa.

Une base pour commencer à mettre à jour le projet éducatif a été élaborée ces derniers mois par le Conseil Pédagogique. Nous approfondirons le travail en 2022/23 en prenant le temps nécessaire. Il n'y a pas que 7 ikastola qui ont travaillé. Le Conseil Pédagogique (qui sera dénommé à présent Conseil de l'Éducation) s'est réuni trois fois et une trentaine d'ikastola ont participé aux réflexions, des Groupes Éducatifs sont en train de se créer dans les ikastola, les directeur.trice.s des primaires et secondaires, l'équipe éducative de Seaska, Le Conseil Exécutif, un groupe d'élèves du lycée, le Conseil des Ikastola élargi, les personnes ayant participé à la rédaction du projet éducatif de 1995 ont participé à cette phase de lancement. Le défi pour la nouvelle année scolaire est triple : le travail de réactualisation du Projet Éducatif, détermination du fonctionnement du Conseil de l'Éducation et la création des Groupes Éducatifs au sein des ikastola. Et bien sûr, commencer à concrétiser tout cela.

Les travaux menés par le Conseil Pédagogique ces dernières années autour de Jean-Mixel ont porté sur les équipes pédagogiques des ikastola, dont les résultats ont été communiqués lors du Conseil des Ikastola de décembre 2021. En effet, ce guide des équipes pédagogiques est une base pour chaque école pour approfondir la réflexion collective sur le Projet Éducatif.

4.2 : Inklusioa / L'inclusion

GARAZI/AZKARATE :

Seaskaren Hezkuntza Proiektuaren ardatz garrantzitsua inklusioa den heinean, Hezkuntza Taldeak gogoeta bat abiatu du inklusioari buruz Seaskaren irizpideak eguneratzeko. Zoin dira ? Inklusioaren gaia euskararen betaurrekoetarik ere begiratzeko hautua eginik izan da, ezberdintasunak aintzat hartzeko aukera berriak eskaintzen dituelakoan. Erran nahi baitu ? Inklusioari buruzko gogoetaren emaitza Hezkuntza Proiektua eguneratzeko ariketan ekarpen gisa txertatuko da, hain segur ere heldu den ikasturte hastapenean.

L'inclusion étant un axe important du Projet Éducatif de Seaska, l'équipe éducative a lancé une réflexion sur l'inclusion pour mettre à jour les critères de Seaska. Quels sont ces critères ? La question de l'inclusion sera regardée à travers la langue basque, car elle offre de nouvelles opportunités pour prendre en compte les différences. Ce qui veut dire ? Le résultat de la réflexion sur l'inclusion sera inclus comme une contribution à la mise à jour du projet éducatif, sûrement en début de la prochaine année scolaire.

Zoin diren irizpideak, justuki hasi den eta ikasturte berrian segituko duen gogoetak adieraziko ditu.

Quels sont les critères, c'est justement la réflexion qui a été entamée et qui sera poursuivie l'année prochaine qui les définiera.

Inklusioa jendartearen erronka gisa agertzen zaigu gaur egun ; alta, Seaskako Hezkuntza Taldean gai horren inguruan lan egiterakoan, kontzeptua lauso eta gaizki ezagutua agertzen zaigu (adibidez, inklusiotik ari beharrean, integraziotik lan egitea). Ondorioz, inklusioaren kontzeptua barnatzea hautatu genuen 2021eko urrian.

L'inclusion nous apparaît aujourd'hui comme un défi de société ; pourtant, lorsque l'on travaille sur cette question au sein de l'équipe éducative de Seaska, le concept semble vague et mal compris (par exemple, travailler à partir de l'intégration au lieu de l'inclusion). En conséquence, nous avons choisi d'approfondir le concept d'inclusion en octobre 2021.

Inklusioaren kontzeptua argitzeko, lanketa bat abiatu dugu 6 hilabetez, non ikuspegi desberdinak gurutzarazi ditugun, baita inklusioa ikastolen bi oinarrirei (hezkuntza eta hizkuntza) konfrontatu ere dugun.

Pour clarifier le concept d'inclusion, nous avons travaillé pendant 6 mois, où nous avons croisé différentes perspectives, et avons aussi confronté l'inclusion aux deux bases des ikastola (l'éducation et la langue).

Nola egin aniztasunaren bermatzeko ikastoletan euskara, hizkuntza minorizatu bat, babestuz. Nola egin inklusioa euskaraz bermatzeko, aniztasuna euskaratik bermatzeko? Indar harreman bateko guttiengotasun egoera batean dira bai pertsona batzu bai euskara.

Comment assurer la diversité au sein des ikastola en soutenant le basque, langue minoritaire. Comment assurer l'inclusion en basque, garantir la diversité en basque ? Des personnes comme la langue basque sont en minorité dans une situation de rapport de forces.

Zein erronka ba ote dugu? Zein praktika plantan eman behar dugu, gaurregungo egoera soziolinguistika kondutan hartuz eta jakinez euskara ez dela bakarrik komunikatzeko tresna bat.

À quels défis sommes-nous confrontés ? Quelle pratique devrions-nous mettre en place, compte tenu de la situation sociolinguistique actuelle et sachant que le basque n'est pas seulement un outil de communication.

Zein praktika asmatu ikastoletan haur guziek euskararen munduan sartzeko aukera ukan dezaten?

Horra Hezkuntza Taldean abiatua dugun gogoetaren bidez askatu nahi genituzkeen korapiloak.

Quelles pratiques doivent imaginer les ikastola afin que tous les enfants aient le choix de rentrer dans le monde de la langue basque ?

Ce sont ces nœuds que nous voudrions dénouer à travers les réflexions que nous avons entamées au sein du groupe éducatif.

LEKORNE :

Xehetasun gehiago nahiko genituzke. Inklusioaren gaia zabala da. Hau ere gai garrantzitsua dela iruditzen zaigu. Ikasturte hasieran hezkuntza proiektuari txertatzeko asmoa dela idatzia da. Hau ere, eztabaida emendakin elkarlan eta gogoeta bidez egina izatea eskatzen dugu eta ez « txertatua » izatea. Hezkuntza proiektuaren parte oso baita.

Nous aimerions plus de détails. Le thème de l'inclusion est vaste. Nous pensons que c'est aussi un sujet important. Il est écrit qu'en début d'année scolaire il sera intégré au projet éducatif. Nous demandons que pour ce sujet également il y ait une réflexion commune et partagée et qu'il ne soit pas « intégré ». Parce que cela fait partie intégrante du projet éducatif.

Hori da. Seaskako Hezkuntza taldeak bere aportazioa egingen du eta Hezkuntza Kontseiluan eztabaida, emendakin, elkarlan eta gogoeta eramane da. Hezkuntza proiektuko inklusioari buruzko partea aberastuko du ekarpen horrek.

C'est ça. L'équipe éducative de Seaska apportera sa contribution et les débats, les amendements, la collaboration et la réflexion auront lieu sein du Conseil éducatif. Cette contribution viendra enrichir le volet inclusion du projet éducatif.

OIHANA :

Egungo testuinguruan eta baliabide falta ikusita, ikastolek, inklusioan dauden zenbat haur hartzen ahal dituzte 2022ko ikasturte hastapenean ?

Nola sustatu IBko langileen eta ikastolaren arteko komunikazioa ?

Dans le contexte actuel et étant donné l'absence de moyens, combien d'enfants en inclusion les ikastola peuvent-elles accueillir à la rentrée 2022 ?

Comment favoriser la communication entre les salariés d'IB et les ikastola ?

Laguntzaileak atzemateko zailtasunak izaten badira ere, azken urteetan ikasturte hastapenetan lortzen da inklusioan diren haurrendako laguntzaileak atzematea. Aldiz zailtasunak izaten dira urtean zehar sortzen diren behar berriendako laguntzaileak atzemateko. Eta ikasturte bukaeran aldiz, Hezkuntza Ministeritzak eman dotazioak gainditzen direlarik sortzen dira baliabide arazoak. Arazoak arazo, inklusioan diren haur oro eskolatu behar da. Baliabideez gain guri dagokigu ere gure ibilmoldeak berrikustea inklusioa ahal bezain bat errexteko.

Bigarren galdera ez dugu ongi ulertzen. (IBko aholkulariei buruz ala AESHetaz da galdera ? Zein komunikazio ?).

Bien qu'il soit difficile de trouver des accompagnant.e.s, ces dernières années il a été possible d'en trouver en début d'année pour les enfants qui sont suivis en inclusion. Par contre, il est difficile d'en trouver en cours d'année pour répondre aux besoins qui se créent en cours d'année. Et en fin d'année scolaire, des problèmes de moyens surgissent lorsque les dotations du ministère de l'Education sont dépassées. Mais coûte que coûte, tous les élèves en inclusion doivent être scolarisés. En plus des moyens, il nous appartient de revoir nos fonctionnements afin que l'inclusion soit la plus efficace possible.

Nous n'avons pas très bien compris la 2^{ème} question (cela concerne les conseillères d'inclusion d'IB ou les AESH ? quelle communication ?)

Emendakin proposamena / Proposition d'amendement du 4.2 :

Mantendu paragrafoa + gehitu :

« Hausnarketarekin batera, aurrekontuan, lerro berezi bat sortuko da harrera egoki, duin eta profesional baten egiteko behar diren medioen finantzatzeko».

Garder le paragraphe + rajouter :

« Parallèlement à la réflexion, une ligne budgétaire spécifique sera dédiée de façon à financer l'ensemble des moyens nécessaires à un accueil adapté, professionnel et digne ».

Gaur egun inklusioko ikasleen harrera egoki duin eta profesionala egiten da ikastoletan. IBko talde profesionala, Seaskakoa, irakasleak eta laguntzaileak inplikatzeko dira lan horretan. Beti hobetu daiteke, eta gure xedea hobetuz joatea da.

Seaskako aurrekontuan inklusioko aholkulari, PIAL koordinazio eta formakuntzaren partea sartua da, Integrazio Batzordeko aurrekontuan familien aholkularitza eta Hezkunde Nazionalak bere gain hartzen ez dituen AESHen partea.

Il y a maintenant un accueil décent et professionnel des élèves en inclusion dans les ikastola. L'équipe professionnelle de l'IB, l'équipe de Seaska, les enseignant.e.s et les accompagnant.e.s sont impliqués dans ce travail. Il peut toujours être amélioré, et notre objectif est de continuer à l'améliorer.

Sont inclus dans le budget de Seaska les conseillères en inclusion de Seaska, la partie coordination et formation du PIAL. Le budget d'Integrazio Batzordea prend en charge les AESH qui ne sont pas pris en compte par l'Education Nationale et le conseil auprès des familles.

LOT :

Emendakin proposamena / Proposition d'amendement

Inklusioan diren ikasleen presentziaz gain, parte hartzea eta garapena segurtzeko baliabideak indartzeko ahalegin bereziak egingen dira.

En plus de la présence d'élèves en inclusion, des efforts particuliers seront faits pour renforcer les moyens afin d'assurer la participation et le développement.

AESHei buruz baldin bada galdera, Hezkunde Ministeritzak ditu finkatzen baliabideak, eta Integrazio Batzordeak bere ahalekin arabera eskasak betetzen ditu.

Si la question concerne les AESH, c'est le ministère de l'Education Nationale qui attribue les moyens et Integrazio Batzordea comble les manques suivant ses propres moyens.

4.3 Formakuntza / La formation

HAZPARNE :

Langileen kudeatzeko, elkar lan batean, "tresnak" sortu. Ikastola bakoitza bere alde ari da eta bulego aldaketa bakoitzean dena berriz egitekoa da. Beraz ikastolen arteko koordinaketa bat sortu langileen segipenarentzat. Edo formakuntza bat eskaini langileen segipena egiten duten burasoei.

Pour la gestion du personnel créez des "outils" communs à toutes les ikastola. Chaque ikastola agit dans son coin et tout est à refaire à chaque changement de bureau. Il faudrait donc créer une coordination entre les ikastola pour le suivi du personnel. Ou proposer une formation aux parents qui ont en charge la gestion du personnel.

Bai, arrunt ados. Izpiritu horretan ikusten dugu sortu nahi dugun formakuntza jarraikiaren lana burasoei : bai langile kudeaketari buruz, baina berdin diruzain, idazkari edo lehendakarien rolari buruz ere.

Oui bien sur. C'est dans cet esprit que nous voyons le travail de formation continue que nous voulons créer avec les parents : tant au niveau de la gestion du personnel, mais aussi au niveau du rôle de trésorier, secrétaire ou président.

Bestalde, bizki ontsa da langileei formakuntzak eskaintzea baina ikasten dutena plantan emateko (eguerdiko pausan bereziki), zein dira ikastoletako egiazko lan baldintzak/medioak?

D'autre part, c'est très bien de former le personnel, mais pour qu'il puisse mettre en pratique ce qu'il a appris (surtout pendant la pause déjeuner), quelles sont les conditions/moyens réels des ikastola ?

Ikastola batean, ikasgelatik kanpo egiten dena biziki garrantzitsua da eraman nahi dugun hezkuntza proiektuan. Langileen errola estrategikoa da, baina ikastolaren proiektuan integratu behar da. Seaskak formakuntzan lagun dezake.

Au sein d'une ikastola ce qui se fait en dehors de la salle de classe est très important pour le projet éducatif que l'on veut mener. Le rôle du personnel est stratégique, mais il doit être intégré au projet d'ikastola. Seaska peut aider à la formation.

ETXEPARE :

Parte hori gehiago zehaztea galdegina da : formakuntza plana zoin izanen den, eta bereziki ikastoletan ardurak hartuko dituzteneri (lehendakari, diruzain) zer proposatuko zaien jakin nahi genuke.

Il est demandé de préciser cette partie : quel sera le "plan de formation", particulièrement pour les parents qui prendront des responsabilités au sein des ikastola (Présidence, trésorerie) ?

Gorago erran bezala, 2022/23 ikasturtean plangintza eraiki behar dugu, modelizatu eta esperimentatu.

Comme mentionné ci-dessus, au cours de l'année 2022/23, nous devons construire, modéliser et expérimenter le plan.

LEKORNE :

Aintzineko Ikastolen kontseiluko irakurketa egunean formakuntza hori zer baliabiderekin egingen zen galdetua izan zen. Untsa ulertu badugu, erantzuna formakuntzan langile kopurua handitua izanen zela izan zen. Hala bada, testuetan idatzia izatea eskatzen dugu.

AESH en formakuntza aipatua da, aurten AESH bat dugu ikastolan eta bere lan baldintzetaz ohartzen gira. Zer egin daiteke AESHen formakuntza eta hilabete sariak hobetzeko ? Irratian etengabe lan eskaintzak entzuten ditugu, baldintza horietan AESH gisa lan egitea zaila iruditzen zaigu.

Le jour de la présentation des documents du dernier Conseil des Ikastola, il avait été demandé quels seraient les moyens qui seraient destinés à la formation. Si nous avons bien compris, la réponse était que le nombre de salariés assurant la formation augmenterait. Si c'est le cas, nous demandons qu'il soit écrit dans le texte.

La formation des AESH est évoquée, cette année nous avons une AESH à l'école et nous constatons ses conditions de travail. Que peut-on faire pour améliorer la formation AESH et leurs salaires ? Nous entendons constamment les offres d'emploi à la radio, il est évident que travailler en tant qu'AESH dans ces conditions semble difficile.

Formakuntzaren ahalak handituko dira eta behar diren baliabideak ezartzeko xedea bada. Hala ere kezka dugu, formatzaile izateko hautagaiak eskas baititugu.

AESHei buruz, bat egiten dugu kezkarekin. Gaur egun lanpostu partzialak baizik ez ditu eskaintzen Hezkuntza Ministeritzak (25 oren astean), eta ondorioz hilabetesariak apalak dira. 3 urteko CDD kontratuen sistematizazioak ez du lagundu ere ez. Posible delarik AESHk ikastoletan 10 oreneko lan kontratu gehigarriak ukan ditzaten izan daiteke aterabide bat heien lanpostua osatzeko, izan kantina, garbiketa, zainketan edo beste.

Les moyens en formation vont augmenter et l'objectif est de mettre les moyens nécessaires. Cependant, nous sommes inquiets par le manque de candidats pour mener la formation.

Nous partageons l'inquiétude concernant les AESH. Actuellement, le ministère de l'Éducation n'offre que des emplois à temps partiel (25 heures par semaine) et, par conséquent, les salaires sont bas. La systématisation des CDD de 3 ans n'aide pas non plus. Lorsque cela est possible, la solution serait que l'ikastola propose un contrat de 10 heures en complément des 25 heures afin de compléter le temps de travail, que ce soit des heures de cantine, nettoyage, surveillance ou autres.

4.4. : Baxo ondoko ikasketak Euskaraz / les études supérieures en basque

ETXEPARE :

Oharra : hausnarketa hori inportantea bada ere, lehentasuna lizeoak ondoko urteetan ezagutuko duen garapenaren kudeaketari emanen zaio (ikus 2).

Remarque : bien que cette réflexion soit importante, la réflexion sur la problématique du développement du lycée sera à prioriser (voir point 2).

Bai ados, baina lizeoaren garapena (arloteknologiko, profesionala) arrunt loturik da ondoko eskaintzari ere.

D'accord. Mais le développement du lycée (filière technologique et professionnelle) est lié à l'offre d'enseignement aussi.

5. Seaska - Hezkunde Ministeritza - Euskararen Erakunde Publikoa hitzarmena / La convention Seaska – Ministère de l'Éducation Nationale – Office Public de la langue basque

GARAZI/AZKARATE :

Erakaskuntzaren kalitatea zaintzeko, iduritzen zaigu kolegioetako postuak negoziatzerakoan, 6.eko gelen gehienezko kopuruak aplikatu behar litaizkela ondoko hiru urteetan.

Afin d'assurer la qualité de l'enseignement, il nous semble que lors de la négociation des postes au collège, il faudrait tenir compte du nombre maximum d'élèves par classe de 6ème pour les trois autres niveaux.

Desdoblaketa heinak hauek dira gaur egun : 6.ean gehienik 28 ikasleko gela, 5, 4 eta 3.ean 30eko gelak. Azken urteetan lortu dugu hein horiek ez daitezen gaindituak izan. Eta 2022-23an ere lortuko dugu. Kolegio publiko eta pribatuek ez dute beti lortzen hein horiek errespetatuak izan ditzaten, eta galdera da gure kolegioetan oraino baldintza hobeak ukan ditzagun 28 gelak izan daitezen maila guzietan. Ados galdegiteko, baina erantzunen digutena da ez dela arrazoinik guk besteek baino baldintza hobeak ukan ditzagun.

Actuellement voici les niveaux de dédoublement des classes : en 6ème maximum 28 élèves/classe, en 5ème, 4ème et 3ème 30 maximum/classe. Nous avons réussi ces dernières années à ce que ces seuils soient respectés. Et nous allons réussir en 2022-23 aussi. Alors que les collèges publics et privés ne réussissent pas toujours à respecter ces seuils, la demande est que nos conditions soient améliorées, afin d'avoir des classes de 28 élèves dans tous les niveaux.

Nous sommes d'accord avec cette demande mais la réponse sera qu'il n'y a pas de raisons pour que nous ayons de meilleures conditions que les autres.

LOT :

Emendakin proposamena / Proposition d'amendement

Titularizatzeko aukera desberdinak negoziatuko dira.

Différentes options de titularisation seront négociées

Bururatzen ari dugun ikasturtean hainbat ahalegin egin dugu gai horren inguruan. Lehen ministroaren zerbitzuekin imertsioari buruzko zirkularra landu dugularik, edo Hezkuntza ministeritzako zerbitzuekin azterketen gaia aipatu dugun aldi oro, titularizatze eta irakasle ordezkoen lan baldintzak hobetzeko eskaerak ere ezarri ditugu mahai gainean, gure aldetik, bai eta Eskolimekin batera (Diwan, Calandreta, ABCM, La Bressola, Scola Corsa, Seaska). Aurten ordezeko guziak MA2tik MA1era pasa ditzaten lortu da, heien soldata hobetuz. Esperientziadun ordezekoak eta bereziki CRPE konkurtsoa pasatzeko frantsesa aski ez dakiten hegoaldeko irakasleek titularizatzeko inspekzio bat ukan dezaten galdegin dugu, baina Parisek ezetz erran digu. « Sauvadet » konkurtso postuak sortzea galdegin dugu (frantses maila apalagoa galdegiten da), baina hor ere ezezkoa ukan dugu. Azkenik ere, gure irakasleak pribatuko grillaren arabera ordainduak izan ordez, publikoko grillaren arabera ordainduak izan daitezen ere galdegin dugu, baina erantzuna beti ezetz izan da.

Nous avons fait un certain nombre d'efforts cette année pour régler ce problème. Lorsque nous avons travaillé la circulaire sur l'immersion avec les services du premier ministre ou lorsque nous avons travaillé avec les services du ministre de l'Education Nationale concernant le sujet des examens, nous avons également demandé d'apporter des améliorations aux conditions de titularisation des enseignants suppléants et afin que leurs conditions de travail soient améliorées. Nous l'avons fait de notre côté mais également avec Eskolim. Cette année nous avons obtenu que tous les remplaçants du primaire passent de MA2 à MA1, améliorant ainsi leur salaire. Nous avons demandé que les suppléant.e.s expérimenté.e.s d'Hegoalde et plus particulièrement ceux.celles dont le niveau de français est insuffisant pour passer le CRPE puissent passer une inspection de titularisation, mais Paris nous a dit non. Nous avons demandé la création de postes à concours "Sauvadet" (un niveau inférieur de français est requis), mais nous avons également eu un refus. Enfin, au lieu que nos enseignant.e.s soient rémunéré.e.s selon la grille privée, nous leur avons également demandé qu'il.elle.s soient payé.e.s selon la grille du public, mais nous avons également eu un refus.

OIHANA :

Zertan dira harremanak Hezkuntza Ministeritza eta Euskararen Erakunde Publikoarekin ?

Quelles sont les relations avec l'Education nationale et l'OPLB ?

Ministeritzarekin harremanak ez dira onak izan aurten, Blanquer hizkuntzen etsai amorratua izan da, eta Errektoreak lerro berean segitu du azterketen gaian. Zirkularra ateratzea lortu dugu Jean Castex Lehen Ministroarekin adosturik, baina Hezkuntza ministeritzak ez du bete

nahi zirkularra ez eta EEPekin izenpetu akordioa ere. EEPekin harremanak onak dira. Zirkularraren negoziaketan Eskolimekin hizkuntzen erakunde ezberdinak (EEP, Okzitano Erakunde Publikoa, Bretainiako, Kataluniako, Kortsikako Kolektibitatea,...) gure ondoan egon dira eta gure eskaerak sustengatu dituzte ministerioaren aitzinean.

Hitzarmenari dagokionez, arraberritzearen nahikeria agertu da hiru aldetatik, baina azken hilabeetako arazoak, azterketen gaian bereziki agertu direnak, argitzeakoak dira oraindik.

Les relations avec le ministère n'ont pas été bonnes cette année, Blanquer a été un ardent ennemi des langues, et le recteur a continué sur la même ligne au sujet des examens. Nous avons réussi à obtenir une circulaire en accord avec le Premier ministre Jean Castex, mais le ministère de l'Éducation Nationale ne veut se conformer ni à la circulaire ni à la convention signée avec l'OPLB. Les relations avec l'Office Public de la langue basque sont bonnes. Dans la négociation de la circulaire avec Eskolim, les différentes institutions linguistiques (OPLB, l'Établissement Public Occitan, Breton, Catalan, La collectivité Corse,...) ont été à nos côtés et ont soutenu nos demandes auprès du ministère.

Quant à la convention, il y a eu une volonté de renouvellement de part et d'autre, mais les problèmes des derniers mois, particulièrement liés aux examens restent à éclaircir.

6 – ANTOLAKETA / organisation

6.1 : Euskal Herriko Ikastolak : Bihar prozesua

ERROBI

Noiz igorria izanen da Bihar galdetegia ?

Quand est-ce que le questionnaire « Bihar » sera envoyé ?

Norabideetan agertzen den helbidean eskuragarri da. Hemen duzue berriro :

<https://labur.eus/Bihar-galdetegia>

Il est mentionné sur les orientations. Le voici à nouveau :

<https://labur.eus/Bihar-galdetegia>

6.2 : Irakasle ordezkioak / Les enseignant.e.s suppléant.e.s

LOT :

Emendakin proposamena :

Aldi berean, lehen eta bigarren mailako irakasle ordezeko guzientzat (urtean zehar eta ikasturte hasieratik direnentzat) eta AESH hauen bide gastuak arintzeko aukera desberdinak aztertuko dira.

En parallèle, différentes options seront étudiées pour réduire les frais de déplacement de tou.te.s les enseignant.e.s du primaire et du secondaire (en cours d'année et dès la rentrée) ainsi que pour les AESH.

Aurten Hezkunde Ministeritzak ordezekoen soldata hobetze ditzan ahaleginak egin dira. Bide horretan lan egiten segituko dugu baldintza egokiak lortzeko, irakasle zein AESHentzat.

Cette année, des efforts ont été faits pour que les salaires des enseignant.e.s suppléant.e.s soient améliorés. Nous allons poursuivre dans ce sens pour obtenir de meilleures conditions tant pour les enseignants que pour les AESH.

UZTARITZE :

Urtero ohartarazten dugun bezala, irakasle ordezkoen egoera benetan problematikoa iduritzen zaigu : kopuruen arazoa, iraunkortasunaren arazoa, lan baldintzen arazoa (lan saria, urtero ikastolaz aldatzen...). Ondorio zuzenak ditu langilearentzat baita ikastolaren funtzionamenduarentzat. Abenduko ikastolen kontseiluan proposamen batzuk aurkeztu genituen, baina pasa zen ikasturtearen bozka zela eta ondoko IK-ko norabideetan aipatu beharko zela erantzuna izan zitzaigun. Beraz ordezkoen gaia sakontzeko lan talde berezi baten sortzeko proposamena berriz ere luzatzen dugu.

Comme nous le soulignons chaque année, la situation des enseignants suppléants semble vraiment problématique : le problème des effectifs, le problème de la pérennité, le problème des conditions de travail (les salaires, changer d'école chaque année...). Elle a des conséquences directes sur le personnel ainsi que sur le fonctionnement de l'ikastola. Nous avons présenté quelques propositions au conseil des ikastola en décembre, mais la réponse avait été que c'était le vote concernant l'année écoulée et qu'il fallait le mentionner pour le prochain conseil des ikastola. Donc, une fois de plus, nous proposons de créer un groupe de travail pour approfondir la question des enseignant.e.s suppléant.e.s.

LOTen bidez lantalde bat sor dadin gaia aztertzeko, begi onez ikusten dugu.

Nous serions favorables à ce qu'un groupe de travail soit créé au sein de LOT.

LOT :

Ikastolen egonkortasuna bermatzeko bideak berriz aztertzeakoak direla aipatu da. Ordezkoen hitzarmena berrikostkoa da ere bai.

Il a été mentionné que les moyens de garantir la stabilité des Ikastola devraient être réexaminés. L'accord professionnel des enseignant.e.s suppléant.e.s serait à revoir également.

Ikus aitzineko erantzuna.

Voir la réponse ci-dessus.

6.3 : Batzorde Eragilea / Le Conseil Exécutif :

AMIKUZE :

Batzorde Eragilean parte hartzeak zer disponibilitate eskatzen du? Zehazki jakin nahi dugu zenbat bilkura diren hilabeteetan (normalki), zer egun/tenoretan egiten diren, bisioz egiteko aukera baden (noizbehinka, sekulan...)

Quelle disponibilité nécessite la participation au Conseil Exécutif ? Peut-on savoir exactement combien de réunions y-a-t-il par mois (en général), quel jour et à quelle heure, s'il y a possibilité de faire les réunions en visioconférence (occasionnellement, jamais...)

Batzorde Eragilea ostiraletan biltzen da, bi astetik behin, baina bakantzetan ez. Ikasturte osoan 18 bilkura. Orain arte arratseko 20.30tatik 00.30ra egiten genituen bilkurak Kanbon. Aurten hasi gira aldatzen 18.30tatik 23.00tara eginez bilkurak, pizza batzuk janez tartean. Egutegia irailean finkatzen dugu ikasturte osorako, baina azken unean ezin duenak etorri (gehienetan haur zaintza arrazoinak tarteko) bisioz partehar dezake.

Le Conseil Exécutif se réunit le vendredi, tous les 15 jours, mais pas pendant les vacances. Soit au total 18 réunions sur l'année. Auparavant nous faisions les réunions de 20h30 à 00.30 à Kanbo. Cette année nous avons changé les horaires : 18h30 à 23:00 avec quelques pizzas. Nous établissons le calendrier en septembre pour toute l'année, et celui ou celle qui au dernier moment ne peut pas assister à la réunion (en général pour des problèmes de garde d'enfants) peut participer à la réunion en visio.

OIHANA :

Azken 4 urteotan Seaskatik joan direnak kontutan harturik (2018ko Ikastolen Kontseiluan batzorde eragileko kide bat, 2021eko ekainean hezkuntza zuzendaria eta berriki Xan Aire) Hainbat organotan esertzeko kideak kontratatzeko zailtasunaren aurrean, SEASKAren erakargarritasunaren galdera sortzen da ?

Au regard des différents départs ces 4 dernières années (parent membre bureau lors de l'IK 2018; directrice pédagogique en juin 2021 et récemment Xan Aire) et face à la difficulté de recruter des membres pour siéger dans les différentes instances, se pose la question de l'attractivité de SEASKA ?

Langileei doakionez, Seaskako talde profesionala aski egonkorra da. Erretretara abiatze eta hautu pertsonalen arabera, baita ere proiektuen garatze eta gaurkotzeen arabera, erregulariki lan deialdi berriak egiten dira. Ez dute denek beti arrakasta bera, baina gauregun, postuak orohar beteak dira.

Batzorde Eragilean, giroa bikaina da, bistan dena ez dela beti aise, baina euskaldunek desafioak maite !

En ce qui concerne le personnel, l'équipe professionnelle de Seaska est assez stable. En fonction des départs à la retraite ou de départ par choix personnel ainsi que de l'évolution et de l'actualisation des projets, de nouvelles offres d'emploi sont régulièrement publiées. Tous les postes n'ont pas toujours le même succès, mais aujourd'hui, les postes sont pourvus.

Au Conseil Exécutif l'ambiance est géniale bien que cela ne soit pas toujours facile, mais les basques aiment les défis !

UZTARITZE :

Aurkeztuak diren hutsuneak Seaskak, instituzio gisa, segitzen duen ereduaren arazo bat ez ote da ? Gure sistemaren funtzionamendua aldatzeko seinale bat ote da ? Azkenean, Hezkuntza proiektuarentzat bezala, Seaskak egin duen bidea eta jendartean gertatu diren aldaketak kontuan hartzeko momentua da, eta beraz elkartearen antolaketa orokorra eguneratzeko beharra izaten ahal da.

Les lacunes présentées ne sont-elles pas liées au modèle que Seaska, en tant qu'institution, suit ? Est-ce le signe d'un changement dans le fonctionnement de notre système ? Enfin, comme pour le projet éducatif, Il est temps de prendre en compte le chemin parcouru par Seaska et les changements intervenus dans la société, et il peut donc être nécessaire de mettre à jour l'organisation générale de l'association.

Hezkuntza Proiektuaren eguneratzeak hainbat aldaketa sortuko ditu ondoko urteetan, edo sortu behar lituzke. Tartean antolaketa ere berrikusten ahalko da.

La réactualisation du projet éducatif entraînera ou devrait entraîner un certain nombre de changements dans les années à venir. Et donc, l'organisation pourrait aussi être revue.

ALOZE :

Ikastolak, galdetzen du norabideetan ikastolen arteko mutualizazioari buruzko puntu bat gehitzen ahal denez : lehendakari eta diruzain guzien kontaktuen zerrendaren komunikazioa... eztabaida taldeak sortu ahal izateko eta elkar trukatzeko.

L'ikastola demande s'il pourrait être ajouté un point dans les Orientations sur la mutualisation entre les ikastola : communication de listing de coordonnées de tous les présidents, de tous les trésoriers, etc... pour pouvoir établir des groupes de discussion, d'échange et de mutualisation.

Abiatu nahi den formakuntzaren baitan txertatzeko ideia ona izan daiteke.

Il peut être judicieux de l'inclure dans la formation que l'on souhaite commencer.

LEKORNE :

Norabideetan agertzen ez diren gaiak /Thèmes ne figurant pas sur les orientations

Iaz Seaskan DLA bat eginen zela agertzen zen testuetan. Zertan da aurtten ? DLA izan da ? Lanketa egin da ? Hala bada ikastolen kontseiluko testuetan agertzea ezinbestekoa dela iruditzen zaigu.

L'année dernière, il était précisé dans les textes qu'un DLA (dispositif local d'Accompagnement) serait fait à Seaska. Quoi de neuf cette année ? Est-ce que le DLA a été fait ? L'étude a-t-elle été menée ? Si tel est le cas, nous pensons qu'il est essentiel de le mentionner dans les textes du Conseil des ikastola.

DLA ikasturte honetan eraman da eta bururatzen ari da. Emaizak abenduko Ikastolen Kontseiluko txosten moralean aipatu beharko ditugu.

Le DLA a été mené cette année scolaire et il est entrain de s'achever. Nous donnerons les résultats dans le rapport moral du Conseil des Ikastola en décembre prochain.

CPF orduak bolondres gisa lortzen ahal zirela aipatu zen iaz. Gure ikastolan ez dugu deus jaso horri buruz. Zertan dira eskaerak ? Nola koordinatua izanen da gai hau ?

L'an dernier il a été dit que les heures de bénévoles pouvaient donner droit à des heures CPF. Dans notre ikastola nous n'avons rien reçu sur cela. Où en sont les demandes ? Comment va être coordonné cette question ?

Ikastoletako lehendakariei galdegin zitzaien bolondres orenen deklarapenak egitea ikastoletako bulegoko diruzain, lehendakari eta idazkariendako. Ikastola batzuk entseatu ziren eskaera egiten baina Jeunesse et Sport ministeritzako egiturak blokatu zituen eskaerak, erranez eskolei ez zela aplikatzen. Gure desadostasuna adierazi eta azalpenak galdegin genituen baina ez dugu erantzunik jaso. Berriz insistatu beharko dugu.

Les président.e.s d'ikastola ont été invité.e.s à faire des déclarations d'heures de bénévolat pour les trésorier.e.s, les président.es et les secrétaires d'ikastola. Certaines ikastola ont fait la démarche, mais le ministère de la Jeunesse et des Sports a bloqué la candidature en disant qu'elle ne s'appliquait pas aux écoles. Nous avons exprimé notre désaccord et demandé des explications mais n'avons reçu aucune réponse. Il va falloir encore insister.

Emendakin proposamen orokorragoa : Proposition d'amendement plus général

Heldu den urtetik aintzina Seaskako Federakuntzako beste elkarteen berri (bildumatxo bat) izatea garrantzitsua dela iruditzen zaigu. Elkarte bakotxak bere biltzar nagusietan bere bilana aurkezten du baina Seaska Federakuntza bat izanez Ikastolen Kontseiluan elkarte bakotxari bere tarte ematea proposatzen dugu.

Nous pensons qu'il est important d'avoir des retours des autres associations dédiées de Seaska (un petit résumé) à partir de l'année prochaine. Chaque association présente son bilan lors de son assemblée générale, mais nous proposons qu'en tant que Fédération Seaska, un temps soit donné à chaque association au sein du Conseil d'Ikastola.

Integrazio Batzordea, Ikastolen Egoitzak, eta Herri Urratsen dinamikan eta biltzar nagusietan ikastola guzietan partehartzea ezinbestekoa da eta ikastoletan egitura horietan egiten den lana eta txostenak zabaltzea baitezpadakoa da. Abenduko Ikastolen Kontseiluko Seaskaren txosten moralean aipamenak egiten dira elkarte horien lanari buruz, baina horrek ezin du ordezkatu egitura horietariko bakoitzaren baitan ikastolek egin behar duten lana eta segimendua.

Il est essentiel que toutes les ikastola participent à la dynamique et aux assemblées générales d'Integrazio Batzordea, Ikastolen Egoitzak et Herri Urrats et et que le travail et les documents travaillés dans ces associations soient diffusés. Lors du Conseil des Ikastola de décembre, le rapport moral mentionne le travail de ces associations, mais cela ne peut pas remplacer le travail et le suivi que les ikastola doivent effectuer au sein de chacune de ces associations.